

PKT

ENTERES

NORBERAREN IRUDIA, nola begiratzen duzu, nola begiratzen zaituzte...

Norberaren irudia sormen- eta protesta -gai gisa.

HELBURUAK	METODOLOGIA	PARTE-HARTZAILEAK	IRAUPENA
<ul style="list-style-type: none"> • Gazteek euren irudiari ematen dioten balioaren berri izatea. • Irudiaren eta bere gaitasunen, aukeren, amarruen, arriskuen... inguruko hausnarketa bultzatzea. • Espiritu kritikoa eta autokritikoa sustatzea. 	<p>Parte hartzailea, adierazgarria eta sortzailea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eztabaida. • Pertsonaien azterketa. • Pertsonaiak portu. • Argazkiak egin. 	<ul style="list-style-type: none"> • Parte-hartzaile kopurua: 10. • Adina: 4 – 18. 	<ul style="list-style-type: none"> • 4 saio: 2h/s.

Argitaratzailea:



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

Laguntzailea:

Arabako Foru Aldundia



Diputación Foral de Alava

GAZTEAREN FORU ERAGUNTZEA



INSTITUTO FORAL DE LA JUVENTUD

**HAU DA NIRE ITXURA
ETA HORRELAKOA NAIZ NI!**

PKTENTERES-EN AZALEAN AGERTU NAHI AL DUZU? KONTAIGUZU!



2007ko otsaileko azala.

0. TESTUINGURUA

Lantegi hau *PKT*expreses Lantegi-programaren (2006-2008) barruan kokatzen da. Vitoria-Gasteizko Udalaren Gazteria Zerbitzuaren menpe sortutako ekimena da eta hiriko hainbat gazte-kolektiboekin batera, prozesu parte hartzaile eta kolaboratzaileak bultzatzen ditu, talde-lana, inguruaren azterketa eta espirtu (auto)kritikoa sustatuz.

Lantegietan landutako edukiak *PKT*enteres aldizkarian argitaratzen dira (azalean eta bi orrialde). *PKT*enteres (PKT) 14 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzendutako hilerro argitaratzen den informazio-aldizkari dinamiko eta parte hartzailea da, Vitoria-Gasteizko Gazteria Sailaren menpe dago eta Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoarekin (GAUB) elkarlanean egiten da.

Info+ *PKT*enteres: www.vitoria-gasteiz.org/pkntenteres

Info+ GAUB: www.vitoria-gasteiz.org/omij

1. NORBERAREN IRUDIA

IRUDIA: nola begiratzen duzu, nola begiratzen zaituzte... Lantegi hau erabat parte hartzailea da, adierazpena lantzen du eta parte-hartzaileei norberaren irudiak, edukiak, hau da, mezua sortzeko duen gaitasuna ikusarazten saiatzen da. Gazteak konturatuko dira, oso kontziente ez izan arren, gaitasun hori garatuz doazela nahiz eta askotan, bakoitzaren taldeak gaitasun hori nahi baino gehiago baldintzatu.

Lantegian egindako lanak *PKT*enteres aldizkarian hartu duen behin betiko izenburua honako hau da: HAU DA NIRE IRUDIA eta horrelakoa naiz ni!

2. HELBURUAK

Hona hemen *PKT*expreses lantegien helburu orokorrak:

- *PKT*enteres aldizkaria gazteengana hurbiltzea eta euren adierazpide eta tresna gisa sentiaraztea.
- Gasteizko gazteen arteko parte-hartzea eta elkarlana sustatzea.
- Gazteen beharrak ezagutzea eta haietara hurbiltzea.
- Gaur egungo gazteria indartzea eta hari hitza ematea.
- Talde-lana sustatzea.
- Nerabeen arteko elkarrizketa eta espirtu kritikoa bultzatzea.
- Gazteen eta erakundeen arteko hurbiltzea-formulak sortzea.
- Gazteen artean parte hartzeko lotura berriak sortzea.
- Inguruko mundua aztertzeke duten gaitasuna suspertzea.
- Hiritar aktibo gisa sormenean eta edukien zabalkunde bizkortzea.
- Nerabeen interesak eta kezak ezagutzea.

*PKT*expreses lantegiak Gasteizko Udalaren lantegi-programan kokatzen dira. Bertan sortzen diren eztabaidek eta edukiak *PKT*enteres aldizkariaren edukiak osatuko dituzte.



Lantegitik ateratako eta aldizkarian argitaratutako behin betiko edukiak.

Jaits ezazu *PKT*enteres 45.zbk. (2007ko otsaila)
www.vitoria-gasteiz.org/pkntenteres



Parte-hartzaileek sortutako irudiak.

- Haien sormen-gaitasuna bizkortzea.
- Haien jarduerak aurrera ateratzeko tresnak eskaintzea.
- Elkartasuna eta begirunea sustatzea.
- Berdintasunean eta genero kontuetan hezteak.

Norberaren irudia lantegiaren helburu zehatzak honako hauek dira:

- Gazteek euren irudiari ematen dioten balioaren berri izatea.
- Haien jardunean praktika egokiak sustatzea.
- Irudiaren eta bere gaitasunen, aukeren, amarruen, arriskuen... inguruko hausnarketa bultzatzea.
- Parte-hartzaileak etorkizunerako prestatzeko, berdintasunean, genero kontuetan eta harreman pertsonaletan hezteak.
- Parte-hartzaileen azterketa-gaitasuna bultzatzea.
- Espiritu kritikoa eta autokritikoa bizkortzea.

3. EDUKIAK

“Norberaren irudi sormen- eta protesta –gai gisa”.

Lantegian landuko ditugun gaiak **irudiaren** ingurukoak izango dira:

Norberaren irudia eta besteei **komunikatzeko eta adierazteko** duen gaitasuna (nortasuna, gogo-aldatea, jarrerak...).

Irudia **komunikatzeko bitarteko gisa**.

Gazteen irudia: orrazteko edo janzteko era eta jarrera, komunikatzeko eta munduaren aurrean agertzeko bitarteko gisa.

Irudia norberaren burua definitzeko edo talde bateko partaide gisa definitzeko modua da.

4. METODOLOGIA

Metodologia analitikoa, parte hartzailea eta sortzailea izango da.

Lantegi honetan, gazteen irudia langai hartuta, partaideak dinamizatzeko helburua dugu. Horretarako, parte-hartzaile bakoitzaren irudia jarriko dugu jokoan eta publizitatetik, irudi publikotik, zinetik eta bestelako erreferenteetatik ateratako irudiekin harremanetan jarriko dugu.

Pertsonaien azterketa.

Euren irudia erabiliz pertsonaiak sortu.

Argazki-saioa.

Irudiak manipulatu.



Parte-hartzaileek sortutako irudiak.



Parte-hartzaileek sortutako irudiak.

5. LANTALDEA

Parte-hartzaile kopurua: 7 – 15 lagun.
Adina: 15 – 16 urte.
Sexua: Talde misota.

Talde honetan gehienak mutilak dira eta hegoamerikar jatorria dute.

6. EGUNAK ETA ORDUTEGIA

2007ko urtarrileko eta otsaileko 4 asteazken.

Urtarrilak 11.....2.30 h (18:00-20:30h).

Urtarrilak 17.....2.30 h (18:00-20:30h).

Urtarrilak 19.....2.30 h (18:00-20:30h).

Otsailak XX.....1.00 h (18:00-19:00h).



Lantegian sortutako irudiak.

7. KOKAPENA

Judizmendiko Gizarte Etxeko Gazte Klubeko instalazioak.

8. MATERIALA

Materiala:

- Bulegoko materiala.
- Zinta itsagarria.
- Errotuladoreak.
- Itsagarria.
- Orri zuridun koaderno txikiak.
- Askotariko aldizkari eta irudiak.
- Taldeak bere irudietan erabiliko dituen osagarriak.
- Ordenagailua eta proiektagailua.
- Tripodea.
- Argazki-kamera.
- Fokuak.

Azpiegiturak:

- Aulkiak eta mahaiak dituen gela bat.

Parte-hartzaileek ekarri beharreko materiala:

- Pertsonaia sortzeko beharrezko izango duten materiala.



Parte-hartzaileek sortutako irudiak.



Lantegian sortutako irudiak.

9. EBALUAZIO-ADIERAZLEAK

Lantegia ebaluatzeko parte-hartzaileekin egindako ebaluazioaz gain, honako faktore hauek hartuko ditugu kontuan:

- Parte-hartze aktiboaren maila (bertaratzea, motibazioa...).
- Gazteen gogobetetze-maila (gazteen ebaluazioa).
- Harreman eta enpatia maila.
- Taldearen harreman pertsonalak.
- Taldearen hausnarketa-gaitasuna.
- Sormen-gaitasuna.
- Taldearen espiritu kritiko eta autokritikoaren maila.
- Lantegian egindako gauzen eta emaitzen maila.

10. LAN-ERANSKINAK

Hurrengo eranskinetan lantegiaren saio bakoitzeko bidai orria topatuko duzu.

1eranskina: 1. saioa

2eranskina: 2. saioa

3eranskina: 3. saioa

4eranskina: 4. saioa



11. KONTAKTUA

Lantegi hau **IA18** egitasmoaren barruan kokatzen da. **IA18** ekintza kulturalak sustatzeko programa da. Nerabeei ematen die hitza proposamen desberdinak aurkeztuz eta hiritar aktibo gisa haien munduaren definizioan parte har dezaten bultzatuz: haien imaginarioa, baloreak, interesak, kezakak, etab.

IA18

Aretxaga, 10
48003 Bilbao
946 053 468

www.casitengo18.com

info@casitengo18.com

Fitxa hau Creative Commons 3.0 España baimenarekin erregistratu da. Aske zara zure taldearekin lantegi hau egiteko, baina gogora ezazu ez dagoela formula magikorik eta hobe dela edukiak zure testuinguruaren eta taldearen beharren arabera moldatzea.



<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/legalcode.es>

Fitxa hau Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzarekin egin da.





1. SAIOA

HELBURUAK	Gazteek euren irudiari ematen dioten balioaren berri izatea. Haien jardunean praktika egokiak bultzatzea. Irudiaren eta bere gaitasunen inguruko hausnarketa sustatzea.
------------------	--

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
10 min.	PKTaren aurkezpena.	PKTexpreses.	PKTenteres (aurreko zenbakiak).
10 min.	Lantegia azaldu.	Lantegiaren <i>planing-a</i> .	
10 min.	Ezagutza-jarduera. Erretratuak.	Harremanak eta kontaktua.	Orri zuridun koaderno txikiak.
30 min.	Ereduen azterketa.	Irudiaren edukia.	Askotariko aldizkari eta irudiak.
30 min.	Irudiak taldeka sailkatu.	Komunikatzeko erak. Irudi-mota. Jarrerak eta edukiak.	Beharrezko materiala: papera, boligrafoak, zinta itsasgarria, diapositiba-proiektagailua.
30 min.	Norberaren irudia zalantzan jarri.		

PKTaren aurkezpena----- **10 min.**
Aldizkaria azaldu. Edukien, kolaborazioen, espirituaren... azalpen laburra.

Lantegia azaldu----- **10 min.**
Lantegia azaldu: Norberaren irudia. Lantegia zertan datzan azaldu, *planing-aren* azalpen laburra.

Ezagutza-jarduera----- **10 min.**
ERRETRATUAK

Ereduen azterketa----- **30 min.**
Gazteei zuzendutako eta modarekin, musikarekin, zinearekin edo joerekin zerikusia duten zenbait argitalpenetatik ateratako irudi-ereduak emango zaizkio taldeari. Zenbait aldizkari-adibide: LOKA, Bravo (alemaniako edizioa), ESETÉ, In Touch, Hip-Flow... eta Leight Bowery edo Hannah Whilke bezalako artisten ereduak, graffitietakoak...

Material hau guztia irudiaren inguruan hausnarketa egiteko erabiliko dugu.

Irudiak taldeka sailkatu----- **30 min.**
Irudiak 3 taldetan sailkatuko ditugu:

Lehen taldea: Gorputz-lengoaiak eta jarrerak garrantzi handia dute irudiaren mezuan. Hori ikusteko, berdin jantzita dauden zenbait pertsona irudikatzen dituzten argazkiak erakutsiko ditugu.

Bigarren taldea: Talde honetan, janzteko moduarekin jarrera jakin bat aldarrikatzen duten irudiak daude.

Hirugarren taldea: Talde honetako irudietan gehiago erreparatu behar zaio testuinguruari. Testuingurua gure garaia, argazkia egin den garaia eta helburua kontuan hartuta aztertu beharko da.

Honela, kameraren aurrean geure burua agertu eta aditzera emateko kontuan izan beharreko hiru alderdiak landuko ditugu.

**Norberaren irudia zalantzan jarri -----30 min.**

Hurrengo saioan egin beharrekoa planteatzen da. Argazki-setean kamera aurreko jarrerak landuko dituzte eta ondoren, irudi horiekin lan egingo dugu. Taldeak zenbait baldintza ezartzen ditu irudien atzealdea beti berdina izateko, ahalik eta neutroena, xehetasun pertsonalek garrantzia har dezaten.

Komeni da saioaren bukaerarako bakoitzak argi izatea argazkian nola agertu nahi duen eta nori zuzendu nahi dion. Horrela, denbora izango dute materiala, arropa eta osagarriak biltzeko eta hurrengo saiorako ekartzeko.



2. SAIOA

HELBURUAK

Gazteen sormen-gaitasuna bizkortzea.
Irudiaren eta bere gaitasunen, aukeren, amarruen, arriskuen... inguruko hausnarketa bultzatzea.

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
30 min.	Ideiak gogora ekarri.	Lehen saioan landutako kontzeptuak.	Lehen saioko materiala.
30 min.	Xehetasunak zehaztu.	Dekoratuak eta osagarriak.	Irudiak osatzeko taldeak ekarritako osagarriak.
60 min.	Argazki-seta.	Teknikoak: Argiztapena, enkoadraketa...	Beharrezko materiala: tripodea, argazki-kamera, fokuak, atzealde lisoa...

Ideiak gogora ekarri----- **30 min.**

Lehen saioan landutako ideiak gogora ekartzeko hitzaldi laburra. Parte-hartzaileek aurkeztutako jarrerak eta irudiak komentatzeko aukera ere izango dugu.

Xehetasunak zehaztu----- **30 min.**

Irudien atzealdea egin, agertokia. Partaide bakoitzak xehetasunak, osagarriak, jarrerak eta irudiak zehaztuko ditu.

Mozorro-jai txikia, irudi-aldaketak, makillajea, ile-apainketa, etab. Partaide bakoitzak bere irudia lehen saioan adierazitako moduan aldatzeko behar duen material guztia ekarri beharko du.

Argazki-seta----- **60 min.**

Parte-hartzaileak jarrera desberdinak erakusten egindako argazkiak.

Kontuan hartuko dira argiztapena, enkoadraketa eta saioan zehar agertuko diren bestelako alderdi teknikoak.



3. SAIOA

HELBURUAK	Parte-hartzaileen azterketa-gaitasuna bultzatzea , batez ere moda, publizitatea, ospea... bezalako lengoaietan. Espiritu kritikoa eta autokritikoa sustatzea.
------------------	--

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
30 min.	Irudi berriak ikusi.	Norberaren irudia.	Lehen saioko materiala.
30 min.	Azterketa eta eztabaida.	Irudien edukia.	Ordenagailua.
30 min.	Irudiak berreraiki.	Plastikoak eta diskurtsiboak.	Beharrezko materiala: aldizkariak, errotuladoreak, guraizeak, itsasgarria, zinta itsasgarria...
30 min.	Komunean jarri.	Edukia helarazten duten irudiak.	

Irudi berriak ikusi-----**30 min.**
 Parte-hartzaileek lantegian egindako irudiak ikusiko ditugu.

Azterketa eta eztabaida-----**30 min.**
 Irudien inguruko eztabaida, ikuspuntuak, nahiak eta emaitzak sozializatu.

Irudiak berreraiki-----**30 min.**
 Parte-hartzaile bakoitzak bere argazkietako bat aukeratuko du eta post-ekoizpena egingo dio irudi berria sortuz (collage, marrazkiak, testuak, etab. erabiliz), kartel- edo publizitate -formatua izango du edo besterik gabe, argazki soila izango da.

Komunean jarri-----**30 min.**
 Emaitzak komunean jarri eta eztabaidatuko ditugu. Azken eztabaida honetan PKTenteres aldizkarian argitaratu beharreko materiala adostuko da.



4. SAIOA

HELBURUAK

Gazteen beharrak ezagutzea eta haietara hurbiltzea.
Gaur egungo **gazteria indartzea** eta hari **hitza ematea**.
Lantegiak planteatutakoari buruz duten **iritzia ezagutzea**.

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
40 min.	Lantegiaren inguruko eztabaida.	Lantegia: Norberaren irudia.	Boligrafoak.
20 min.	Inkestak.		Inkestak.

Lantegiaren inguruko eztabaida-----**40 min.**

Lantegia ebaluatzeko eztabaida.

Balorazioa : zer iruditu zaie lantegia? Probetxurik atera al diote?

Ondorioak

Inkestak-----**20 min.**

Lantegia ebaluatzeko inkestak bete.